



EEPF
Euskadiko Euskal
Pilota Federakuntza

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.
Federación de Pelota Vasca de Euskadi.

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: info@eepf.org / Astola 26 Abadiño 48220

GIZONEZKOAK JOKO INTERNAZIONAL ETA JOKO TRADIZIONALEKO FINALERDIETARA SAILKATUTA ETA EMAKUMEZKOAK JOKO INTERNAZIONALEKO FINALA BIDERATUTA

Lehiaketaz betetako lehen egunean, Euskal Pilota Selekzioak Europako txapelketako Joko Internazionalako finalerdiak bideratu ditu baita gizonezkoen Joko Tradizionalekoak ere.

Jardunaldia luzea izan da Freixoko kantxetan. Lehenbiziko egun honetan Joko Internazionalako eta Pilota Portugaldarreko liga faseak jokatu dira eta Euskal Pilota Selekzioko emakume eta gizonek duten maila ikaragarria erakutsi dute Europako Pilota txapelketa honetan.

Gizonezkoen Joko Internazionalan, finalerdietara sailkatzeko talde oso gogorra zuten eta Italiaren aurkako lehenbiziko partidua tanto batengatik galdu eta gero (6-5) gauzak zailago jarri dira. Bigarren partidua erraz irabazi dute 6-0 Portugalen aurka baina Valentziarrek eta Italiarrek gauza bera egin dute. Valentziak 6-4 irabazi dio Italiari eta hori dela eta finalerdietara sailkatzeko Munduko txapelduna den Valentziari irabazi behar zioten gure mutilek. Ikaragarritzko partidua jokatu eta gero Euskal Pilota Selekzioak 6-5 irabazi dio Valentziari eta bihar goizean jokatu diren finalerdietara sailkatu dira. Finalerdia Herbehereen aurka jokatu dute.

Emakumezkoen Joko Internazionala arratsaldean hasi da eta gaurko egunean taldeko faseko lehen bi partidua bakarrik jokatu behar izan du Euskal Pilota Selekzioak. Lehenbiziko partidua oso lehiatua izan da eta azkenean 6-5eko markagailu estuarekin irabazi diote Herbehereei. Bigarren partiduan oso motel hasi dira gure neskek Italiarren eta konturatu orduko 1-4 galtzen jarri dira. Momentu horretan berpiztu eta gaur egungo munduko txapeldunak zergatik diren erakutsi dute 6-5 irabazita. Bihar goizean taldeko faseko beste bi partidua jokatu dituzte eta dena espero bezala joaten bada arratsaldeko 15:00etan finala jokatu dute.

Eguna gizonezkoen Joko Tradizionalaren taldeko fasearekin bukatu da. Guztira 3 partidu jokatu dituzte eta lehen bi partidua irabazi eta gero Valentziarren aurka galdu egin dute. Ala eta guztiz larunbat arratsaldeko finalerdietara sailkatzea lortu dute gure mutilek. Hauek izan dira emaitzak:

- EUSKAL SELEKZIOA: 20
- ITALIA: 10

- EUSKAL SELEKZIOA: 20
- INGALATERRA: 12

- EUSKAL SELEKZIOA: 13
- VALENCIA: 20

Finalerdiak, larunbat arratsaldean Belgikaren aurka jokatu dute.



EEPF
Euskadiko Euskal
Pilota Federakuntza

Euskadiko Euskal Pilota Federakuntza.
Federación de Pelota Vasca de Euskadi.

Teléfono: 94.681.81.08 / 665.764.881 / Email: info@eepf.org / Astola 26 Abadiño 48220

LOS CHICOS CLASIFICADOS A SEMIFINALES DEL JUEGO INTERNACIONAL Y TRADICIONAL Y LAS CHICAS HAN ENCARRILANDO LA FINAL DEL JUEGO INTERNACIONAL

En un primer día lleno de competición la Euskal Pilota Selekzioa ha conseguido meterse en las semifinales del Juego Internacional y Tradicional del campeonato de Europa.

La jornada ha sido larga en las canchas de juego de Freixo. Este primer día se han disputado las fases de liga de Juego Internacional masculino y femenino y la fase de liga del Juego tradicional masculino. Los hombres y las mujeres de la Euskal Pilota Selekzioa han demostrado el gran nivel que tienen en este Campeonato de Europa de Pelota.

En el Juego Internacional masculino, tenían un grupo muy duro para clasificarse a semifinales y tras perder el primer partido ante Italia por un tanto (6-5) las cosas se han puesto más difíciles. Han ganado el segundo partido por 6-0 ante Portugal, pero Valencia e Italia han hecho lo propio. Valencia ha ganado 6-4 a Italia y por eso los nuestros tenían que ganar al campeón del Mundo para clasificarse a semifinales. Tras un gran partido, la Euskal Pilota Selekzioa ha ganado 6-5 a Valencia y se han clasificado para las semifinales de mañana por la mañana. Jugarán la semifinal contra Holanda.

El Juego Internacional femenino ha comenzado por la tarde y en la jornada de hoy la Euskal Pilota Selekzioa sólo ha tenido que disputar los dos primeros partidos de la fase de grupos. El primer partido ha sido muy disputado y al final han ganado a Holanda con un ajustado marcador de 6-5. En el segundo partido nuestras chicas han empezado muy dormidas ante las italianas y en cuanto se han dado cuenta se han puesto perdiendo 1-4. En ese momento han resucitado y han demostrado por qué son los actuales campeones del mundo ganando 6-5. Mañana por la mañana jugarán los otros dos partidos de la fase de grupos y si todo marcha como se espera jugarán la final a las 15:00 de la tarde.

La jornada ha finalizado con la fase de grupo del Juego Tradicional masculino. En total han disputado 3 partidos y tras ganar los dos primeros han perdido el último contra los valencianos. A pesar de ello, han conseguido clasificarse para las semifinales del sábado por la tarde. Estos han sido los resultados:

- EUSKAL SELEKZIOA: 20
- ITALIA: 10

- EUSKAL SELEKZIOA: 20
- INGALATERRA: 12

- EUSKAL SELEKZIOA: 20
- VALENCIA: 10

Las semifinales las jugarán el sábado a la tarde contra Bélgica.